



PINT OF SCIENCE 24

MAIATZAK 13, 14 ETA 15

Ondarroa

13

astelehena



Aurkezlea: Joseba GOIKOETXEA.

19:00etan,
OVEJIZATE.

Elena GALAN DEL CASTILLO. artzaina eta BC3-ko ikertzailea.

20:00etan,
BASERRITIK MAHAIRA:
BERTOKO EKOIZLEEN GAZTA ETA ESNEKIAK.

Malen SARASUA ARANBERRI, esneki eta gazta ikertzailea (Leartiker)
eta Aimar BILBAO EGURROLA, gazta ekoizlea (Txikiñe)

14

martitzena



Aurkezlea: Lara BURGOA.

19:00etan,
MATERIALAK ETA HIDROGENOA:
ENTROPIA ALTUKO ALEAZIOAK.

Olaia GORDO BURGOA, ingeniaria (Mondragon Uibertsitatea)

20:00etan,
MATERIALAK EZAGUTZEN AURREZTEKO.

Eneritz CEREZA BENGOTXEA, ingeniaria (Mondragon Uibertsitatea)

15


eguztiena



Aurkezlea: Leire ARANTZAMENDI.

19:00etan,
OTOLITOAK, ANTZOEN "KUTXA BELTZAK".

Narrea ALDANONDO ARISTIZABAL, biologoa eta antxoa ikertzailea (Azti)



<https://pintofscience.es/events/ondarroa>



#PINT24OND

BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



HITZALDIAK

www.zientziarengiltzak.org

2024ko MAIATZAren 13a | ZAMORA TABERNAN | 19:00 | ZIENTZIAREN GILTZAK ELKARTEA | ONDARROA

«Zientziaren berri duen gizartea askeagoa eta manipulagaitzagoa da»

GAIA: OVEJIZATE

La charla trata desde un punto de vista vivencial el cambio de mirada que se necesita para comprender los retos a los que se enfrenta la investigación en ganadería sobre todo cuando se hace con el objetivo de adaptarnos al cambio climático.

HIZLARIA: ELENA GALAN DEL CASTILLO artzaina eta BC3-ko ikertzailea

Elena Galán del Castillo Bartzelonakoa da, Ingurumen Zientzietan lizentziatua (U:A:) eta Historia Ekonomikoan doktorea. XIX. eta XX. mendeetan Katalunian nekazaritzak eta abeltzaintzak izan zuten trantsizioa aztertuz egin zuen tesia. Euskal Herrian bizi da 2015etik, eta urte horretara Basque Centre for Climate Change-ra (BC3) joan zen klima-aldaketak eta horrek esnetarako abeltzaintzan duen eragina ikertzera. Berrikiago, bere ikerketa euskal artzain sistemen alderdi ekonomiko, sozial eta instituzionalak aztertzerara bideratu da, Artzain Eskolarekin koprodukzio prozesu bat barne. 2022an utzi zuen bere lan akademikoa Pirinioetan artzain gisa lan egiteko, eta gaur egun uztaizten ditu udako denboraldia, artzain gisa, eta negukoa, berriaz, BC3-ko ikertzaile gisa, gizakien eta ez gizakien arteko loturen inguruan.



2024ko MAIATZAren 13a | ZAMORA TABERNAN | 20:00 | ZIENTZIAREN GILTZAK ELKARTEA | ONDARROA

«Zientziaren berri duen gizartea askeagoa eta manipulagaitzagoa da»

GAIA: BASERRITIK MAHAIRA: BERTOKO EKOIZLEEN GAZTA ETA ESNEKIAK

Europako «baserritik mahaira» estrategiak elikagai seguru, osasungarri eta jasangarrien kontsumoa sustatzen du. Estrategia horrekin bat datoz gure inguruneko artzau-gaztandegiak, lurraldearekin eta gure kultura gastronomikoarekin oso lotuta daudenak, eta beren jarduera ekonomikoa ekoizpen iraunkorreko sistemetan oinarritzen dutenak, bai ingurumenaren, ekonomiaren bai gizartearen ikuspegitik, Km0 esneki berritzaileen ekoizpenaren bidez.

HIZLARIAK:

MALEN SARASUA ARANBERRI esneki eta gazta ikertzailea (Leartiker)

Elikagaien Zientzia eta Teknologian Lizentziatua. LEARTIKER Esne Zentroko arduraduna eta ikertzailea. Esperientzia zabala esneki berritzaileen garapenean, esne eta esnekigintza alorreko gai ezberdinen ikerketa proiektuetan eta gaztandegien egunerokotasunean aholkularitza teknikoak eskaintzen.



AIMAR BILBAO EGURROLA gazta ekoizlea (Txikiñe)

Berriatuarra. Frisoro eskolan Nekazaritza eta Abeltzaintza ekoizpena ikasi zituen eta gero Leartikeren irakaskuntza. 26 urte dabil lanean baserri munduan. Gaur egun Txikiñe gaztak ekoizten ditu eta Leartikeren ikastaroak ematen ditu.



GAIA: MATERIALAK ETA HIDROGENOA: ENTROPIA ALTUKO ALEAZIOAK

Hidrogenoa indarra hartzen ari da deskarbonizazio bidean ohikoak diren erregai fosilen alternatiba gisa. Ondorioz, bai gobernu zein enpresek interes handia erakutsi dute hainbat proiektutan parte hartuz. Alabaina, hidrogenoa biltegiratzeko eta garraiatzeko orduan «Hidrogenoak Eragindako kaltea» deituriko arazoa dago. Metal gehienak fenomeno hori jasaten dute eta fenomeno horrek metalen eta, ondorioz, azpiegituren bizi iraupena laburtzen du. Metal horietako batzuk «Hidrogeno Bidezko Hauskortasuna» jasaten dute eta horrek zuzenean propietate fisiko eta mekanikoetan eragina eduki lezake.

Orain arte, fenomeno horri aurre egiteko azpiegiturak gain-dimentsionatzen dira baina arazoa ez da saihesten. Horregatik, hauskortasun-arazo hor erakusten ez duten material berriak garatu behar dira, Entropia Altuko Aleazioak adibidez.

HIZLARIA: OLAIA GORDO BURGOA ingeniarria (Mondragon Unibertsitatea)

Mungian jaioa 1997an. Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza, Mondragon Unibertsitatean (2020an graduatua). Industria Ingeniaritza masterra. Espezializazioa Material eta prozesuetan Mondragon Unibertsitatean.

Mondragon Unibertsitatean tesia egiten. Entropia Altuko Aleazioen garapena hidrogeno-hodi eta deposituentzako. Materialak Eraldatzeko Prozesu Aurreratuak ikerketa taldean, fundizio arloan.



GAIA: MATERIALAK EZAGUTZEN AURREZTEKO

Urtean 400 bilioi lata baino gehiago kontsumitzen dira mundu osoan, hortaz unitateko materiala gubitzek aurrezki ekonomiko eta ekologiko globalak ekar ditzake. Horretarako, materialen jokabideak sakonki ulertzea funtsezkoa da. Gure ikerketan, materialari laborategi eskalako saiakuntzak egin dizkiogu, zenbaki-modeloak garatzeko. Hauek materialaren erantzuna aurreikusten dute fabrikazio-prozesuetan eta erabilera eskarrietan, diseinua optimizatzeko gaitasuna emanik.

HIZLARIA: ENERITZ CEREZA BENGOETXEA ingeniarria (Mondragon Unibertsitatea)

Ondarroan jaioa. Bilboko Ingenieritza eskolan (EHU) Ingenieritza Industrialeko gradua eta masterra. Mondragon Unibertsitateko Materialak Eraldatzeko Prozesu Aurreratuak ikerketa taldean doktoretza egiten 2020tik.



HITZALDIA

2024ko MAIATZAren 15a | IDOIA TABERNAN | 19:00 | ZIENTZIAREN GILTZAK ELKARTEA | ONDARROA

www.zientziarengiltzak.org

«Zientziaren berri duen gizartea askeagoa eta manipulagaitzagoa da»

GAIA: OTOLITOAK, ANTXOEN "KUTXA BELTZAK"

Antxoak gorabehera handiak izan ditu azken hamarkadetan. Gehienok gogoratuko dugu haren arrantza bost urtez itxita egon zela, eta ondorio larriak izan zituela arrantzaren sektorean. Gorabehera horiek ulertzea funtsezkoa da, berriro gerta ez dadin. Horretarako, antxoen «kutxa beltzak» irekiko ditugu, eta horietan dagoen informazioa deszifratukodugu.

Kaxa beltz horiek otolitoak dira, arrainen belarrian dauden harri txikiak. Haien eraztunek antxoen bizitzari buruzko informazio asko gordetzen dute, hala nola noiz jairo diren eta non ibili diren.

HIZLARIA: NAROA ALDANONDO ARISTIZABAL biologoa eta antxoa ikertzailea (Azti)

Biologian lizentziatua (2002) Universidad de La Laguna eta Biologian doktorea (2010) AZTI eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
Dokoretza ondokoa (2012-2013): King Abdullah University of Science and Technology (Saudi Arabia).

2013tik AZTIko Ikertzailea Itsas Ikerketako Unitatean.

